

5- ESPAINIAKO ETA EUROPAKO LURRALDEAK

Espainia European

1. Espainiako lurraldea

Espainiako lurraldea osatzen dute:

- **Iberiar penintsula:** zatirik handiena da.
- **Balear uharteak:** Mediterraneo itsasoan daude.
- **Kanaria uharteak:** Ozeano Atlantikoan daude.
- **Ceuta eta Melilla:** Afrikako iparraldean daude.

Espainia lurraldeko mugak:

- **Iparraldean:** Kantauri itsasoa, Pirinio mendiak, Frantzia eta Andorra.
- **Mendebaldean:** Ozeano Atlantikoa eta Portugal.
- **Ekialdean:** Mediterraneo itsasoa.
- **Hegoaldean:** Mediterraneo itsasoa, Ozeano Atlantikoa eta Maroko.

KOKATU MAPAN (jolasa) https://es.educaplay.com/recursos-educativos/1234530-espainiako_lurraldea.html




2. Espainia, EBko herrialde bat (Europar batasuna: Comunidad Europea).

Europar Batasunak 28 herrialde batzen ditu.

- Herrialde horiek elkarlanean aritzen dira beren ekonomia eta gizartea hobetzeko.

JOLASTU: <https://mapasinteractivos.didactalia.net/comunidad/mapasflashinteractivos/recurso/paises-de-la-union-europea/816562a3-1da9-4b7f-a32a-82d47a41c51a>



Europar batasunean dauden lurralde guztiek abantailak dituzte:

- Beraien produktuak saldu ahal dizkio elkarri, zergarik ordaindu gabe.
- Hemen bizi garenok beste edozein herrialdetan bizi, ikasi eta lan egiteko aukera daukagu.
- Txanpon bera daukagu: EUROA

Espainiako lurralde-antolamendua

Autonomia erkidegoak

1- Espainiako lurraldea



17 autonomia-erkidego

2 hiri autonomo:
CEUTA eta MELILLA

Espainia
17 autonomia-erkidegotan eta 2 hiri autonomotan
antolatuta dago.

Autonomia-erkidegoek eta hiri autonomoek zenbait erakunde dituzte, gobernatzeko:

- Parlamentu bat: erkidegoko legeak egiten ditu.
- Presidente bat: erkidegoaren ordezkaria da.
- Gobernu bat: erkidegoko politika bideratzen du.

JOLASA:

https://es.educaplay.com/recursos-educativos/856329-espainiako_autonomia_erkidegoa.html

2. Probintziak



Espanian, berrogeita hamar probintzia daude.

- Batzuk barnealdean daude, hala nola Madril;
- Beste batzuk kostaldean daude, hala nola Bartzelona;
- Eta hiru, uharteetan daude: Las Palmas, Santa Cruz Tenerifekoa eta Balear Uharteak.

Probintziek diputazio probintzial bat izan ohi dute.

JOLASA: <https://es.educaplay.com/recursos-educativos/?q=espainiako+probintziak>

3. Udalerriak

Udalak zuzentzen du udalerria. Udal-gobernua **alkateak eta zinegotziek** osatzen dute.



- Zinegotziek izendatzen dute alkatea, eta bera da udalburua.
- Herritarrek aukeratzen dituzte zinegotziak, udal-hauteskundeetan.

Udalak antolatzen ditu udal-zerbitzuak, hala nola ur-hornidura, argia, kale-garbigeta...

LABURPENA:

- Espainiako lurraldea hamazazpi autonomia-erkidegotan eta bi hiri autonomotan antolatuta dago.
- Probintzia batek edo gehiagok osatzen dute autonomia erkidego bakoitza, eta zenbait udalerrik osatzen dute probintzia bakoitza. Espainian 50 probintzia daude.



Nola gobernatzen den Espainia

1. Espainia estatu demokratikoa da

Konstituzioa da Espainiako lege garrantzitsuen.

Demokrazia

Espainiako **gobernua demokratikoa** da.



Espainiarrek erreferendum bidez onartu zuten 1978an. Konstituzioan hau jasotzen da:



- Herritarren eskubideak eta betebeharrak. Esaterako, ideiak libreki adierazteko eskubidea eta legeak betetzeko betebeharra.
- Estatu erakundeak. Hauek dira Espainiako erakunde nagusiak: estatuburua, Gorte Nagusiak, Gobernua eta justizia-erakundeak.

2. Espainiako erakunde nagusiak

Gobernuak

■ Espainiako Gobernua

Espainiak konstituzioa duen arabera, MONARKIA PARLAMENTARIOA da. Hori dela eta, **Erregea** da Espainiako burua.



SENATARIOAK
DIPUTATUAK

LEGEAK
idatzi eta
onartzen
dituzte.



PRESIDENTEA
MINISTROAK

Estatua
gobernatzeko
dute.



AUZITEGIAK

LEGEAK
betetzen ez
dituztenak
epaitu eta
zigortzen
dituzte.



3. Auzitegi Konstituzionala



Espanian, badago auzitegi berezi bat. Auzitegi Konstituzionala deritzo.

Legeetan adituak diren pertsonak osatzen dute, hala nola epaileak, Zuzenbideko irakasleak, fiskalek...

Auzitegi Konstituzionaleko pertsonak arretaz aztertzen dituzte Gorteak edo autonomia-erkidegoetako parlamentuek onartzen dituzten legeak, Espainiako Konstituzioarekin bat datozen ikusteko.

LABURPENA:

Espania estatu demokratikoa da. Konstituzioa da lege garrantzitsuena. Han jasotzen da zein diren gobernu-erakundeak:

Estatuburua, Gorte Nagusiak, Gobernua eta justizia-auzitegiak.

AUKERATU ETA JOLASTU:

https://www.symbaloo.com/embed/shared/AAAAAmMpbIMAA41_HDIbzw